




EAEko BPGa %3,9 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

EAEko barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratutako aurre-
rapenaren arabera, EAEko eko-
nomia %3,9 hazi zen aurtengo
hirugarren hiruhilekoan. Beraz,
aurreko hiruhilekoan hasi zen mo-
teltzeko prozesuari jarraipena
eman dio. Enpleguari dagokio-
nez, urte arteko aldakuntza tasa
%2,0 izan zen.

Iturria: Eustat.

Esportazioak %27,8 handitu ziren abuztuan

Atzerriara esportatutako ondasunak Urtarriletik abuztura bitartean. Milioi euro



Abuztuan, EAEtik atzerriara espor-
tatutako ondasunen balioa %27,8
handitu zen iazko datuaren aldean.
Energia alorreko produktuen sal-
menta %61,0 igo zen eta gainerakoe-
na, berriz, %24,6. Lehen zortzi hila-
beteetako zenbaki metatua 21.000
milioi eurotik gorakoa da, serie histo-
rikoan jaso den kopururik gorena.


Iturria: Eustat.



Gaualdien kopurua %23,5 igo zen irailean

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko iraila. Mila



Iturria: Eustat.


Irailean, hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %23,5 igo ziren 2021arekin alderatuta.

Irail batean edozein urtetan erregistratu den kopururik handiena da aurtengoa. Orobat, hiruhileko datu metatua 2,2 milioi gaualditik gorakoa da, eta hori ere errekor historikoa da.

Langabezia tasa %7,9ra jaitsi zen 3. hiruhilekoan

EAEko langabezia tasa

Ehuneko



Iturria: Eustat.

Eustatek gaur argitaratu duenez, **EAEko langabezia tasa %7,9ra jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan**. 2009ko bigarren hiruhilekotik jaso den tasarik txikiena da hori. Sexuaren arabera, emakumeen tasa %8,3 da orain, aurreko datua baino puntu erdi txikiagoa, eta gizonena, berriz, %7,4, aurreko balioa baino zortzi hamarren txikiagoa.